

# Ezpalak

JON TORNER

## Japoniako animazio zinemari gorazarre Beldurrezko Astean

HILAREN 31TIK azaroaren 8ra bitartean egingo da Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinema Astearen XIX. edizioa. Film luze eta laburrak Antzoki Zaharrean eta Victoria Eugenia antzokian proiektatuko dituzte, horietako zazpi euskarazko azpitu-luuekin. Rob Schmidt zuzendari estatubatuarren *The Alphabet Killer* pelikula irekiko du egitaraua. Aurten, Japoniako animazio zinemari eskainiko diote atzera begirakoa.

Hayao Miyazaki, Isao Takahata, Katsuhiro Otomo, Satoshi Kon eta Yoshiaki Kawajiri bezalako zuzendarien filmak izango dira ikusgai Donostian. Proiektzioez gain, bestelako ekimenak ere izango dira, V. Komiki Jardunaldiak kasu. Angel Unzueta –Marvel eta DC argitaletxeentzat lan egin du– eta Alex San Vicente –bere komikiak *Trama*, *Mister K*, *L'Inedit* eta *Spirou* bezalako aldizkarietan plazaratu ditu– marrazkilariek gidatuko dituzte. Egitarau osoa: [www.donostiakultura.com/terror](http://www.donostiakultura.com/terror).



## Zerberri.com bilatzailea sortu dute

GORKA JULIO informatikariak eta Haritz Rodriguez kazetariak sortu dute Zerberri.com euskarazko albisteentzako bilatzailea. Google-n oinarritutako tresna da eta euskarazko ehun iturri arakatzen ditu. Iturrien aurretiazko hautaketa eta denbora tartearan arabera bilaketa dira bere ezaugarri nagusiak, hizkuntzarekin batera. Aldez aurretik hautatutako iturri euskaldunetako emaitzak eskaintzen ditu soilik eta, gainera, bilaketa kronologikoak egiteko aukera ematen du.

**Eider Rodriguez** idazleak irabazi du Elkar argitaletxeak, Beasaingo Udalak eta CAF enpresak antolatutako ohi duten Igartza Saria. Errenteriarrak 6.000 euroko diru-laguntza jasoko du *Katu jendea* ipuin liburua idazteko. Liburua Elkarrek plazaratuko du.

**Rafa Ruedak** *Zubaitz okerretan gora noa* (auto-ekoizpena) bakarkako hirugarren diskoa kaleratu du. AEBetako hiru musikari ezagunek parte hartu dute diskoan: Fernando Saunders baxu jotzaileak, J.T. Lewis bateria jotzaileak eta Jane Scarpantoni cello jotzaileak. Joseba Irazoki gitarra ere alboan izan du Ruedak.

**Sylvet Caro** idazleak eta Marko Armspach marrazkilariak *BataKlon* eta *Karamelo sorgina* (Alberdania) ipuina plazaratu dute. BataKlon ahariaren abenturak jasoko dituen ipuin bildumako lehen alea da. Sei urtetik gorako hurrei zuzendurik dago eta Kattalin Totoriak euskaratu du frantsesetik.

**Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen** egoitza Villabonako Subijana Etxea izango da aurrerantzean. Mintzola izena eman diote eraikinari. 900 metro koadro ditu eta elkartearen lan ildo nagusiek –transmisioa, sustapena, ikerkuntza eta komunikazioa– bat egingo dute bertan. Xenpelar dokumentazio zentroa, adibidez, hara eraman dute jada.

**Juan Ignacio Vidarte** Bilboko Guggenheim Museoko zuzendaria, Guggenheim Fundazioaren Estrategia Globalaren arduradun izendatu dute. Besteak beste, Abu Dhabiko (Arabiar Emirerri Batuak) eta Guadalajarako (Mexiko) museoen proiektuak kudeatu beharko ditu. Gainera, Guggenheimek New Yorken, Bilbon, Venezian eta Berlinen dituen museoaren arteko elkarlana koordinatuko du.

● **Iñaki Peñak Ahuntzaren Eguerdiko Doministikua blogean:** «Kepa Junkerak berrogeita piko artista erdaldun ederto limurtu ditu eta geurera hurbildu ditu ariketa estetikoki eder-ederrean. Halandabe, bereak ez dau kontatzen, erdaldun batek beste erdaldun batzuei euskaraz abesteko erakartzea? Limurtzekotan geuk Junkerari egin behar izango geuntsan lehenago, eta gero berak nahi dau-nari. Baina tire, Gatibu taldeak euren leleno diskoan Robe Iniesta eta Fito Cabrales bizkaieraz abesten ipini

zitu. Oskorri beterranoak be, urtez urte *Pub Ibiltaria* eta *Hator*, *hator kantari* horiekin guztiekin, erdaldunak (eta euskaldunak) liluratuz. Posiblea da».

● **Koldo Etxebarria margolariak Eta Kitto aldizkarian:** «Aldaketa handia da. Jendeak tenpera utzi eta olioarekin margotzeari ekin zion momentuarekin berdinduko nuke aldaketa hau [ordenagailua erabiltzea] (...) Orain irudiaz egiten da berba, ez margoez. Ez da erabiltzen den teknika hitz egiten, sortzen den irudia

da garrantzitsuena. Teknikaren esklabutza amaitu da, betikoa berreskuratu da: irudia, igorri nahi denaren euskarri bezala».

● **Ainhoa Ansa Gipuzkoako Kantu Txapelketako koordinatzaileak Diario Vascon:** «Guk susmoa dugu Musika Eskoletan euskal kantuari behar bada ez ote zaion behar adinako garrantzirik ematen. Txapelketa hau aitzakia polita izan liteke Musika Eskoletan euskal musika txertatzeko».